



AMAIA ZENTROA
Benito Perez galdos z/g
01002 GASTEIZ
araba@bertsozale.com
945010505



Txapelketa eztanda txikitan
Joan zaigu alafede...
Baina ez du ezer suntsitu nahi
Eraikitzea du xede...

TN(T)aren eztanda txikiak Araban

Iñaki Viñaspre



Oiongo seguratak, serio eta zurrun

Zein azkar pasatzen diren lau urte, my friend. Batzuontzako Maialen Lujanbiok txapela atzo lortu bazuen ere, Txapelketak bide erdia egin du ber-
riz dagoeneko. Txapelduna Bec-eko bere tronoan dago, finalaurrekoak bu-
katzeko zain.

Baina bada txapelketan aritu eta arituko den beste txapeldunik. Arabar
Errioxako **Txandrio bertso eskola** esaterako. Urriaren 26an hartu zuen
Oionek txapelketa beso zabalik eta han egon ziren txandriotarrak montajera-
ko prest: aulkiak jarri, oholtza apaindu, kamioiak hustu, frontoia bete.... Be-
raiei (eta Txapelketako beste langileei) esker gozatu ahal izan genituen hurbil-
dutako 825ok **Manex Agirrek** utzitako aleak.

Txapeldunetz ari bagara, ezin ahaztu **Oihane Perea**, gure txapelduna,
gure herrialdearen izena defendatu zuena, urriaren 13an, Altsasuko lurretan.
Kanporaketek beste bi protagonista arabar izan dituzte: **Idoia Beitia** (g.j.)
Markinan eta **Mikel Fdz de Arroiabe** kanporaketetan epaile aritu dena.

Finalaurrekoetan ere, txapelketaz gozatzeko aukera eduki dugu etxetik
gertu. Azaroaren 17an jokatu zen lehen itzuliko azken finalaurrekoa **Mur-
gian. Bertako bertso eskolako kideek** eduki zuten aretoa atondu eta jen-
dea laguntzeko ardura, bai ondo bete ere! Ardura eta aretoa, 1180 lagun el-
kartu baikinen.

Finalaurrekoen bigarren itzulia falta da orain. Eta hemendik aurrera
arituko den arabar bakarria epailea da, **Ekaitz Elorriaga**. Hala ere, txapelke-
tak ondo egindako bidearen indarra du. Finalerako sarrerarik ez dago, baina
morborik ez da faltako!!

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

Berripapera



BERTSO VS TXOKO, BERTXOKO 2vs2!

Oier Suarez, geopotoa

2vs2, ba hori, aurtengo nobedadea! **Bertxoko Sariketa** berriro ere etorri zaigu, baina oraingoan binaka. Azaroan hasi genuen abentura, Arabako geografia beste behin errepasatzera. Txokoz txoko bertsoan, herriz herri bertxoko.

Azaroaren 2an, Eskuernagan, Arabako hegoaldean afaldu genuen, Arabar Errioxako ardo gozoa edanez. Giro epelean hartu genuen kafea ta kopa, bertsolariak lanean ziarduten bitartean. Aiba! Hor ere nobedade bat! Aurten denak dira Arabarrak, Euskal Herriko bertsolariak ezin al dituzte bi gauza egin aldi berean? Bertxoko eta Txapelketa Nagusia? Hobeto! Dena guretzat! *Kartela ikusi, bertsolarietara begiratu, berriro kartelera... Jode! Altuera irabazi dik Oihanek! Eta rapeatzen ikasi dik! A ez! Iñaki Viñaspre duk, Iker Pastorrekín batera "Nola ez dugu jango, nola ez dugu jango, Iker o la txuleta ta tomate Orlando" abesten, Iker Olabarrieta eta Orlando Arreitumandiari.*

Azaroaren 9a, Izarra, Arabako iparraldea. Gaztetxe berriko ate aurrean kotxe urdin bat, barruan merendua, zaldi txorizo ta guzti. Bertsolariak abesten hasi zirenean, jendeak eskapo. Baina gelditu ginenok gustura. Bueno, ia denok, ze Unai Mendibil ikustera joan zena JonPirekin konformatu beharko, eta Zubi entzun nahi zuenak Xabi Igoa zuen kontsolamendu.

Azaroak 15, elurra mara-mara, eta gu Kanpezuko Ibernalora. Furgonetilla 4x4a hartuta, Azazeta poliki-poliki igo Arabako Mendialdeko bihotzerantz. Bapo-bapo afaldu genuen, piper betez betetako kroketan barne, eta goxo-goxo Paula Amilburu eta Julen Zulaika VS Jagoba Apaolaza eta Ander Solozabal entzun genituen. Oraingoan nor falta? Ba... gai jartzaila! Miñoiek ez omen zioten Azazeta pasatzen utzi. Elurragatik? Gaiengatik? Ezin jakin. Pontxo eta Gauza sailkatu ziren finalerako... Ordu txikiak arte geratu ginen Ibernalon, gitarra, armonika eta kantuak lagun, etxerako buelta inongo kunetara amildu gabe egiteko itzaropenarekin.



1. kanporaketa, Eskuernagan



2. kanporaketa, Izarran



3. kanporaketa, Ibernalon



"Ai ama! Bertxoko! Hanka motz ta pota!"

BECerako sarrera gabe geratu zara?

Ba etorri Agurainera Azaroaren 22an!

BINAKAKO FINAL HIRUKOITZA

Perea-Pastor

Pinedo-Sanchez

Apaolaza-Solozabal

Afarian izena emateko, deitu 688 695 875 zenbakira. Afalostean saioa doan

Gasteizko Udalak ez du punturik erantzuten

ABE

2014ko udal aurrekontuetan ere, Gasteizko Udalak Arabako Bertsozale Elkartearekin azken urteotan izan duen hitzarmena bertan behera uzteko asmoaren berri jaso dugu hedabide eta alderdi politikoen bidez, Udalaren aldetik inolako azalpenik jaso gabe. Hirugarren urtea da egoera berean aurkitzen garena, berriz ere ez dugu inolako komunikazio ofizialik jaso, ez ahoz ez eta idatziz ere. Euskara Sektore Kontseilura jo behar izan dugu honi buruz galdetzeraz; orain hilabete batzuk Kontseilu honetan, funtzionamendu serio ezak eta adostutako irizpideak ez betetzeak baldintzaturik, parte hartzeari uko egin bagenion ere.

2012ko aurrekontuetan Gasteizko Udalak onartu zuen akats baten ondorioz geratu ginela Hitzarmenik gabe, Kultura arlotik Euskara arlora pasaz eta murrizketak izanda berreskuratu genuen Hitzarmena. 2013ko aurrekontuetan Udalak, beste alderdiekin negoziatzeko txanpon truke moduan gorde zuen. Izan ere oposizioko alderdiek gure proiektua baloratzen dute, udalak ez bezala.

Egun, 2014ko aurrekontuak lantzen ari diren honetan, ez dakigu zer gertatuko den gure Hitzarmenarekin, dakiguna da ez dela aurreproiektuan ageri, Elkartearen biziraupena jomugan jarritz.

Egoera horrek suposatzen duena argi utzi nahi dugu. Lanean ari gara: “Gu ere bertsoan” proiektuan Gasteizko 9, ikastetxetan 900 haurrekin; Arabako 2014ko kuadrilla artekoan bat-bateko 5 talde Gasteiztar arituko dira kantuan, 8 bat taldetxok bertso jarrien sailean parte hartuko dute, 100 bat lagun denera; bertso-eskolan 3 talde dauzkagu martxan; Gasteizko jaietako Matxeteko saioak lotzen hastekoak dira... Eta urrian hasi eta ekainean amaitzen den ikasturtea aurrera doa. Arabako Bertsozale Elkartearen Gasteizko proiektu guztia dago jokoan.

32 urte luze hauetan euskararen berreskuratze prozesuaren eskutik joan da beti bertsolaritza, ekarpena egin diogu eta bertatik edan dugu, elkar elikatu dugu, elkarren beharra dugu. Besteak beste, Arabako Bertsozale Elkarteak egindako lana, gizarte mailan oso ondo baloratua dago, adin guztietako euskaldunek aisia eta astialdian euskara erabiltzeko, hizkuntzaren kalitatea handitzeko eta euskaraz gozatzeko proiektu oso bat eskaintzen duelako, integrala, euskararen ekosistema erabat aberastuz, eta euskaldunen komunitatea elkarreraginean jartzen lagunduz.

Gasteizko Udalari eskatu nahi diogu erabakia atzera bota dezan, bertsolariak ez ditzala isilarazi, bertsozaleak ez ditzala zokoratu, ez ditzala plazak suntsitu, ez dezala euskal kultura baztertu.

Zer da bertsoa? Eta txapelketa?

Ruben Sanchez



Saio didaktikoa Oionen

Azkunari zor...

IKA, AEK eta Udaberria euskaltegietan, Hizkuntza Eskolan, Oion, Miranda de Ebro eta Murgian eman ditugu Txapelketa Nagusia girotzeko bertso-ikastaroak. Guztira 400 bat ikasle. Beste euskal herrietan ere hala dabilta.

2013. urte honen hondarretan ikasleek segitzen dute bertsolaritza dela eta harritzen: bertso bat azkar eta ondo nola egiten den erakustean, Tomasita kubatarraren dezima bat jar-tzean eta BEC-tekada erakustean.

Eta dena Azkunari zor! (Zesarri Zesarrena zor). Izan ere, munduko alkaterik guayenari goiz batean lurra zapaltzean otu ez balitzaio inguruko aretorik erraldoiena Bilbon egitea (gero Bilbon kabitzen ez zitzaionez Barakaldon egin bazuen

ere), finalak euskararen hirian ospatzen segituko zukeen. Donostian.

Bi gauza gertutuko ziratekeen orduan: 1, gipuzkoarrek Barakaldorako autobus antolaturik ez zuten izango; eta 2, EHBEn inori ez zitzaiokeen otuko bertsolaritza erdal komunitatera gerturatu behar zenik.

Relaxing cup of kafesnea in belodromoa.

